



Osakidetza


EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Barakaldo, Bizkaia – Euskal Herria (Espainia)

Kirurgia Plastikoa

Gaitasunetan oinarritutako prestakuntza espezializatua Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea

**Irakaskuntza-ikuspegia:
Zazpi gaitasun-eremutan oinarritutako lanbide-profila**



Egoiliarrak:
Medikuak
Tutoreak
Erizaindegia

Prestakuntzaren Planifikazio-Garapen-Ebaluazioan koherentzia

Konpromisoa: erantzukizun sozialean oinarritutako irakaskuntza-akreditazioa

Erreferentzia: Morán-Barrios J. **Un nuevo profesional para una nueva sociedad. Respuestas desde la Educación Médica: la formación basada en competencias.** Rev. Asoc. Esp. Neuropsiq. 2013; 33 (118): 385-405.
<http://www.revistaen.es/index.php/aen/article/view/16614/16454>



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Barakaldo, Bizkaia – Euskal Herria (Espainia)



Kirurgia plastikoa, konpontzailea eta estetikoa

Kirurgia plastikoa, konpontzailea eta estetikoa espezialitate kirurgikoa da, eta gorputzean edo gorputzen funtzioetan eragina duten egiturak erreparatu edo ordeztu, jaiotzetiko prozesuetan, prozesu hartuetan, tumore batek eragindako prozesuetan edo inboluzio-prozesuetan hori egitea beharrezkoa denean. Horretarako, transplanteak edo ehunen mobilizazioa oinarri dituzten teknikak (injertoak, plastiak, mikrokirurgia, inplanteak, etab.) erabiltzen ditugu. Espezialitateak lotura du giza gorputzaren itxurarekin eta funtzioekin.

Gure espezialitateko zati handi bat lotuta dago erredura larriak dituzten pazienteak artatzearekin. Paziente larrien unitate espezializatuetan artatzen ditugu, diziplina anitzeko tratamenduen bidez.

Jarraian, honako hauek zehaztuko dira:

- Nor gara
- Non gaude
- Prestakuntza-eskaintza
- Prestakuntza-ibilbidea (errotazioak)
- Ikerkuntza
- Prestakuntzaren ebaluazioa



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Guruztetako Unibertsitate Ospitalea
Barakaldo, Bizkaia – Euskal Herria (Espainia)



Nor gara



Zerbitzuburua

Juan José García Gutiérrez dk.



Tutoreak

Jaime Caramés Estefanía dk.

Kirurgia plastiko, konpontzaile eta estetikoko zerbitzua sortu zenean, prestakuntza eskaintzen du, Espezialitatearen Batzorde Nazionalak diseinatu duen espezialitatearen programa osoa barne hartuta.

1972. urtetik dauka espezialistak prestatzeko akreditazioa. Urtean prestakuntza-plaza bat (BAME) eskaintzen du.

1972tik aurrera, honako doktore hauek izan dira zerbitzuko zuzendariak: Alfaro, Francisco Javier Gabilondo Zubizarreta eta Juan José García Gutiérrez.

Hona hemen zerbitzuaren garapenean izandako gertaera nabarmenak:

- Erredura Handien Unitatea sortzea
- Ehunen (homoinjertoak, etab.) bankua sortzea. Gaur egun, Galdakaon dago
- Mikrokirugiaren bidez, berreraikuntza-prozesuak egitea (bularraren berreraikuntza, beheko gorputz-adarrak berreraikitzea...)
- Bularreko Kirurgia Onkoplastikoko Unitatea: bularreko patologia (jaiotzetikoak eta hartuak) artatzea, berehalako berreraikuntza edo geroratu.
- Patologia kraniofazial traumatikoko larrialdiei erantzuteko erreferentzia-zentroa da.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Barakaldo, Bizkaia – Euskal Herria (Espainia)



- Erreferentzia-unitatea da, genero identitateko nahasmenduak dituzten pazienteak artatzeko

Hauxe da lantaldea:

- ❖ Atalburu bat (zerbitzuburu lanean dihardu)
- ❖ 11 alboko mediku
- ❖ Bost barne-mediku egoiliar

Zerbitzuak honako asistentzia-atal edo -unitate hauek ditu:

- **Kirurgia plastikoko kirofanoa:** Kirurgia plastikoko eta Erredura Handien Unitateko eremuetan programatu diren interbentzioak egiten dira. Anestesia orokorra eta sedazioa erabiltzen dira (10 saio aste bakoitzean). San Juan de Dios ospitalean egiten dira, goizez eta arratsaldez.
- **Pediatriako kirofanoa:** populazio pediatrikoko espezialitatearen ohiko jarduera kirurgikoak egiten ditugu. Anestesia orokorra eta sedazioa erabiltzen ditugu (saio bat hilean).
- **Anestesia lokaleko kirofanoa:** anestesia lokala edo anestesia lokala eta erregionala barne hartuko dituzten interbentzio programatuak egiten dira (lau saio aste bakoitzean).
- **Erredura Handien Unitatea:** erredura handiak dituzten pazienteei etengabeko eta diziplina anitzeko arreta ematen zaie. Ohe-kopurua: 5
- **Kanpo-kontsultak:** egunero, bi kontsulta egiten dira patologia monografikoari eta orokorrari buruz.
- **Saio klinikoak:** astean zehar, ospitaleratuta dauden edo ebakuntza jaso duten pazienteen jarraipena egiten da, eta aukera terapeutikoak aztertzen dira.
- **Asteroko saio monografikoak:** mediku egoiliarrek eta alboko medikuek ematen dituzte. Berrikusketak bibliografikoak.
- **Diziplina anitzeko batzordeak:** genero-identitateko nahasmenduak, melanomak, kirurgia bariatrikoa, oin diabetikoa, bularreko patologia, buruko eta lepoko tumoreak, etab.
- **Gelan bertan egoteko guardiak eguneko 24 orduetan, urteko 365 egunetan:** alboko mediku batek eta mediku bik edo batek egoiliar bertan egiten dituzte guardiak, urte osoan.

Urteroko jarduera eskuragarri dago hemen: [El Hospital > Memoria Anual Completa "Áreas Clínicas"](#)



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Barakaldo, Bizkaia – Euskal Herria (Espainia)



Non gaude

Kirurgia Plastiko, Konpontzaile eta Estetikoko Zerbitzua Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean dago:

Gurutzetako plaza z.g. Barakaldo 48903.

Barakaldo, Bizkaia

[Ikus ospitalea Google Maps-en](#)

Zerbitzuko Idazkaritza:

9. solairuan, erdian.

Administrazio-idazkaria:

Minerva Sánchez Hilario dk.

Ana Arija Blanco dk.



Harremanetarako telefonoa: +34 946 006 469

Helbide elektronikoa: secretaria.cirplastica.cruces@osakidetza.net



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Guruztetako Unibertsitate Ospitalea
Barakaldo, Bizkaia – Euskal Herria (Espainia)



Prestakuntza-eskaintza

Gure antolakuntza eta asistentzia-jarduera handiari esker, espezialitateko alderdi nagusi guztietan espezialisten prestakuntza eskaini eta berma dezakegu. Garrantzitsuenak honako hauek dira:

- a. Erredurak eta ondorioak artatzea
- b. Edozein eremu anatomikotan beharrezkoak diren berreraikuntza anatomikoa, funtzionala eta egituren birmoldatzea egiten dira, patologiak tratatu, eta kirurgiaren bidez zuzentzeko.
 - a. Bularraren berreraikuntza
 - b. Burua eta lepoa berreraikitzea
 - c. Akatsak zuzentzea, etab.
- c. Azaleko tumoreak, zati bigunak eta hezur-aldeak kirurgiaren bidez tratatzen dira, beharrezko erauzketa- edo berreraikuntza-teknikak erabilia.
 - a. Melanoma Kartzinoma basozelularrak eta epidermoideak
 - b. Zati bigunetako sarkomak
 - c. Hezurretako tumoreak: erresekzioa eta berreraikuntza
- d. Jaiotzetiko malformazioak kirurgiaren bidez zuzentzen dira burezurrean, lepoan eta aurpegian, bai eta beste alde batzuetan ere, baldin eta hezur-ehunak edo zati bigunak berreraiki edo birmoldatu behar badira.
- e. Eskuaren kirurgia:
 - a. Larrialdiko patologia: berrinplanteak, akatsen zuzenketa
 - b. Patologia kronikoa eta ondorioak: Dupuytren-en gaixotasuna; karpoko kanalaren sindromea, erreduren arrastoak, esku erreumatikoa, tendoi-transferentziak eta atzamarretakoak
- f. Aurpegiko traumatologia

Horiez gain, honako patologia eta prozedura konplexu hauek arduraz tratatzen ditugu:

- a. Berreraikuntza mikrokirurgikoak
- b. Melanoma Unitatea
- c. Genero Disforiaren arloko Unitatea
- d. Erredura Handien Unitatea
- e. Bularreko Patologiaren Unitatea
- f. Buruko eta Lepoko Patologiaren Unitatea
- g. Oin Diabetikoaren arloko Unitatea



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Barakaldo, Bizkaia – Euskal Herria (Espainia)



Prestakuntza-egonaldiak eskatzen dizkiegu Gurutzetako Unibertsitateko Ospitaleko profesionaleri, bai eta beste zentro batzuetako profesionaleri ere. Gure zerbitzuan, mediku egoiliarrek prestakuntza-errotazioak egiten dituzte kirurgia plastikoan, aurpegi-masailetako kirurgian, traumatologian, dermatologian, kirurgia pediatrikoan eta neurokirurgian. Prestakuntza-eskaintzaren ardatz nagusiak:

- a. Erredura Handien Unitatea
- b. Berreraikuntza-kirurgia eta kirurgia onkologikoa
- c. Mikrokirugiari buruzko oinarrizko ikastaroa eta ikastaro aurreratua antolatzea

Gehiago jakin nahi izanez gero, hemen dago eskuragarri gure zerbitzu-zerrenda:

[Ospitalea> Kirurgia Plastikoaren zerbitzu-zorroa>](#)

Irakaskuntza Batzordeak ikastaroak antolatzen ditu [ikastaroak \(ikusi irakaskuntza-jarduerak\)](#) espezialitate guztien oinarrizko prestakuntza bateratua osatzeko. Ikastaro horietako gehienak ezinbestekoak dira azken titulua lortzeko.

Ospitaleak [saio orokorrak \(ikusi irakaskuntza-jarduerak\)](#) antolatzen ditu hilero, asteazken batean edo bitan, 8:30ean, Areto Nagusian. Saio horiek garrantzi handikoak dira prestakuntza osoa lortze aldera, espezialitatea zeinahi den. Izan ere, interes bereziko kasu klinikoei buruz ikasteaz gain, ospitalearen, zerbitzuen edo unitateen funtzionamenduaren eta horien arteko loturen berri jasotzen da, baita, batzordeek duten jarduera garrantzitsuarena ere.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
 ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
 ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
 EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
 Guruzetako Unibertsitate Ospitalea
 Barakaldo, Bizkaia – Euskal Herria (Espainia)



Prestakuntza-ibilbidea (errotazioak)

	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE	URT	OTS	MAR	API	MAI
R1	Kirurgia plastikoa		Lar.	Kir. orokorra			Traumatologia			Aurpegi-mas. kir.			
R2	Aurpegi-mas. kir.		Derma.		ORL		ZIU		Kirurgia plastikoa (EH Unitatea)				
R3	Kirurgia plastikoa (EH Unitatea)												
	Kirurgia plastikoa: gorputz-inguruaren atala												
R4	Kirurgia plastikoa: gorputz-adarren atala								Kir. plastikoa: burua eta lepoa				
	Kir. plastikoa Bular Atala								Bularreko kir. plastikoa				
R5	Kir. plastikoa: burua eta lepoa								Gorputz-adarren kir.				



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Barakaldo, Bizkaia – Euskal Herria (Espainia)



Nahitaezko errotazioak Gurutzetako Ospitalean



Kirurgia plastikoa – Erredura Handien Unitatea



Kirurgia plastikoa – Gorputz-inguruaren atala (Kirurgia bariatrikoa). Muineko lesioa duten pazienteak



Kirurgia plastikoa – Oin diabetikoko eta gorputz-adarren atala



Kir. plastikoa – Buruko eta lepoko atala Melanoma. Malformazio baskularrak.



Kirurgia plastikoa – Bularreko patologien atala. Genero Disforiaren arloko Unitatea.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Barakaldo, Bizkaia – Euskal Herria (Espainia)



	EKA	UZE	ABU	IRA	URR	AZA	ABE	URT	OTS	MAR	API	MAI
R1	<p>Larrialdiko oinarrizko patologiak ezagutzea. Desbridatzeko prozesua, zauriak jostura, drainatzea, traumatismoak...</p> <p>Kirurgia plastikoaren oinarrizko kontzeptuak</p> <p>Larrialdiko medikuntza-patologiaren oinarrizko kontzeptuak</p> <p>Kirurgia plastikoarekin lotura zuzena duten eta antzeko espezialitateen oinarrizko kontzeptuak</p>											
R2	<p>Kirurgia plastikoarekin lotura zuzena duten eta antzeko espezialitateen oinarrizko kontzeptuak</p> <p>Paziente kritikoak maneiatzeko oinarrizko kontzeptuak. Bide zentralak kanalizatzea, bentilazio mekanikoa erabiltzea, tratamendu medikoak...</p> <p>Erredura handiak dituzten pazienteak maneiatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Erredura handiak dituen pazientearen maneiatze akutua eta jarraipena. Hedadura, sakontasuna, etiologia, fluidoterapia, sendaketak, tratamendu medikoak, <i>shock</i>-a tratatzea - Erredura handiak dituen pazientearen tratamendu kirurgikoa - Pazientearen erredura handien arrastoak tratatzea eta jarraipena egitea 											
R3	<p>Erredura handiak dituzten pazienteak maneiatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Erredura handiak dituen pazientearen maneiatze akutua eta jarraipena. Fluidoterapia, sendaketak, tratamendu medikoak, <i>shock</i>-a tratatzea - Erredura handiak dituen pazientearen tratamendu kirurgikoa - Pazientearen erredura handien arrastoak tratatzea eta jarraipena egitea <p>Gorputz-inguruko kirurgia:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Abdominoplastiak, kruoplastiak eta brakia-plastiak. Abdomeneko paretako kirurgia. 											



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Guruztetako Unibertsitate Ospitalea
Barakaldo, Bizkaia – Euskal Herria (Espainia)



	<ul style="list-style-type: none">- Muineko lesioak dituzten pazienteak maneiatzea eta tratatzea
R4	<p>Gorputz-adarren patologiak tratatzea:</p> <ul style="list-style-type: none">- Jatorri askotariko ultzerak, akatsen zuzenketa, esku erreumatikoa, tendoi-patologiak, patologia neurobaskularra, zati biguneko tumoreak, berrinplanteak, hezur-akatsak...- Lotutako patologia traumatologikoak ezagutzea: osteosintesia <p>Buruko eta lepoko patologiak tratatzea:</p> <ul style="list-style-type: none">- Aurpegiko traumatologia- Kirurgia onkologikoa: tumore-erresekzioak eta berreraikuntza. Hustura zerbikalak- Trauma ondorengo edo patologia funtzionalaren ondoriozko errinoseptoplastiak- Berreraikuntza-kirurgian, ORL eta aurpegi-masailetakoko zerbitzuekin batera lan egitea. Buruko eta lepoko batzordea. <p>Malformazio baskularrak artatzea</p> <ul style="list-style-type: none">- Malformazio baskularren kirurgia- Tratamenduan, beste zerbitzu batzuekin aritzea: enbolizazioak, tratamendu medikoak <p>Melanomaren tratamendua:</p> <ul style="list-style-type: none">- Melanoma Unitatea- Tratamenduaren eta jarraipenaren protokoloa ezagutzea: gongoil zentinelak, kirurgia...
R5	<p>Bularreko patologiak artatzea:</p> <ul style="list-style-type: none">- Berehalako berreraikuntzak edo berreraikuntza geroratuak bularretan. Teknikak eta indikazioak ezagutzea.- Mastektomia profilaktikoak: mutazio genetikoei, indikazioei eta teknikei



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Barakaldo, Bizkaia – Euskal Herria (Espainia)



buruzko kontzeptuak, besteak beste

- Bularra handitzeko eta txikiagotzeko mamoplastiak
- Bularreko Patologiaren Unitatearekin lan egitea (ginekologia, anatomia patologikoa, onkologia eta erradiologia)
- Bigarren mailako linfedema linfadenektomiaren bidez artatzea

Buruko eta lepoko patologia tratatzea (maila aurreratuko kontzeptuak):

- Aurpegiko traumatologia
- Kirurgia onkologikoa: tumore-erresektzioak eta berreraikuntza. Hustura zerbikalak
- Trauma ondorengo edo patologia funtzionalaren ondoriozko errinoseptoplastiak
- Berreraikuntza-kirurgian, ORL eta aurpegi-masailako zerbitzuekin batera lan egitea. Buruko eta lepoko batzordea.

Malformazio baskularrak artatzea:

- Malformazio baskularren kirurgia
- Tratamenduan, beste zerbitzu batzuekin aritzea: enbolizazioak, tratamendu medikoak

Melanomaren tratamendua:

- Melanoma Unitatea
- tratamenduaren eta jarraipenaren protokoloa ezagutzea: gongoil zentinelak, kirurgia...

Genero-disforia duten pazienteak maneiatzea eta tratatzea:

- Genero Disforiaren arloko Unitatearen funtzionamendua ezagutzea: inklusio-protokoloa, tratamendua eta jarraipena
- Tratamendu Kirurgikoa
 - o Eguneko kirurgia: mastektomiak edo mamoplastiak, handitzeko
- Genitalen berresleipena egiteko kirurgia: faloplastiak eta bagina-plastiak



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Barakaldo, Bizkaia – Euskal Herria (Espainia)



1. urtea:

- a. Lehenengo hiru hilabeteetan Kirurgia Plastikoko Zerbitzuan: espezialitatearekin hasierako harremana izateko, eta funtzionamendua eta langileak ezagutzeko
- b. Larrialdi orokorretan: hilabetea
- c. Kirurgia Orokorrean: hiru hilabete
- d. Traumatologian: hiru hilabete
- e. Aurpegi-masailtako kirurgia: lau hilabete

2. urtea:

- a. Dermatologian: 2 hilabete
- b. ORL: 2 hilabete
- c. ZIU: 2 hilabete
- d. Kirurgia plastikoa – Erredura Handien Unitatea: 6 hilabete

3. urtea:

- a. Kirurgia plastikoa – Erredura Handien Unitatea
- b. Kirurgia plastikoa – Gorputz-inguruko atala eta muineko lesioa duten pazienteen atala

4. urtea:

- a. Kirurgia plastikoa – Gorputz-adarren atala: 6 hilabete
- b. Kirurgia plastikoa – Buruko eta lepoko atala Melanoma. Malformazio baskularrak: 6 hilabete

5. urtea:

- a. Kirurgia plastikoa – Bularreko patologien atala. Genero Disforia. Urte osoan
- b. Kirurgia plastikoa – Buruko eta lepoko atala. Melanoma. Malformazio baskularrak: 6 hilabete
- c. Kirurgia plastikoa – Gorputz-adarren atala: 6 hilabete



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Barakaldo, Bizkaia – Euskal Herria (Espainia)



Etengabeko Arreta – Guardia Medikoak (4-6 hilabete):

Oro har, prestakuntza-aldiaren hasieratik, Kirurgia Plastikoko Zerbitzuan egingo ditu guardiak. Ospitaleko beste zerbitzu batzuetan errotazioak egiterakoan, zerbitzu horretako guardiek lehenasuna izango dute, baina, hala eta guztiz ere, Kirurgia Plastikoko guardiak egiten jarraitu ahal izango du.

Kirurgia Plastikoko Zerbitzuko guardiak bertan egin behar dira. Honako hauek zaintzen dira:

- Larrialdietako Zerbitzuaren bidez sartzen diren patologiak: zauriak, erredurak, abzesuak, aurpegiko traumatologiak...
- Ospitalizazio-solairuan ospitaleratuta dauden pazienteen jarraipena
- Erredura Handien Unitatean ospitaleratuta dauden pazienteen kontrola

Guardia horietan era jarraituan parte hartzen dute Kirurgia Plastikoko mediku egoiliarrek ez ezik, Aurpegi-masailetakoa Kirurgiako Zerbitzuko eta Dermatologia Zerbitzuko egoiliarrek ere, Kirurgia Plastikoko Zerbitzuan errotazioak egin ondoren. Guardiak horrela antolatuta, prestakuntzaren hasierako urteetako egoiliarrak edo beste zerbitzu edo ospitale batzuetako egoiliarrak beti daude beste egoiliar batekin, zeinak eskarmentu handiagoa baitauka eta egoiliar gisa urte gehiago egin baitu.

Mintegietan, ikastaroetan eta saio klinikoetan parte hartzea: nahitaezkoa da ospitalean eta zerbitzuan antolatzen diren jarduera guztietan, barne mediku egoiliarrei berariaz zuzendutako jarduerak izan zein jarduera orokorrak izan.

Zerbitzuan bi saio egiten dira astero:

- Saio batean, kasu klinikoak edo diziplina anitzekoak aztertzen dira
- Eta bestean, gaiak edo bibliografia berrikusten dira

Prestakuntza-egonaldiak:

Barne-mediku egoiliarrak nazioko zein atzerriko zentroetan jaso dezake kanpo-prestakuntza. Kanpoko errotazioak aldi bakarrean eta era jarraituan ala zatika egingo dira R4 eta R5 urteetan. Hona hemen errotazioen adibide batzuk:

- Queen Victoria Hospital, East Grinstead, Ingalaterra
- Mutua Montañesa – Piñal doktorea, Santanderren
- Fundación Cavadas/Clínica Cavadas – Cavadas doktorea, Valentzia
- Hospital Santojanni – Angrigiani doktorea, Buenos Aires, Argentina
- Hospital Johns Hopkins – Eduardo Rodríguez doktorea, Baltimore, Estatu Batuak



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea Barakaldo, Bizkaia – Euskal Herria (Espainia)



Honako hauek dira espezialitateko prestakuntza-ikastaro espezifikoak:

- Mikrokirurgiari buruzko ikastaroa (gaur egun, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleak antolatzen du)
- AO Fundazioaren ikastaroa, aurpegiko osteosintesiari buruz



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Barakaldo, Bizkaia – Euskal Herria (Espainia)



Ikerkuntza

Ospitaleak [BioCruces](#) ikerkuntza-zentroaren ikerketa-laguntza dauka.

Zerbitzuak honako ikerketa-lerro hauek zuzentzen ditu, edo haietan laguntzen du:

- a. Gantzetik zelula amak eskuratzea. BioCruces Institutuaren lankidetzarekin batera.
- b. Jatorri autologoko hemostatikoen erabileraren saio klinikoa, farmazia-industriaren laguntzarekin batera

Egoiliarra poliki-poliki ikerketa-lanetan parte hartzen hasten da. Egoiliar gisan bi urte egin eta gero, doktore-tesia egiten has daiteke.

Jarduera zientifikoari buruzko informazio zehatzagoa eskuragarri dago hemen:

[Ospitalea > Ikerkuntza > Memoria Zientifikoa](#)



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Barakaldo, Bizkaia – Euskal Herria (Espainia)



Prestakuntzaren ebaluazioa

Ebaluazioa ikasketen motorra da; hortaz, ikasketak hobetzeko asmoz, indarrak eta ahuleziak hauteman ondoren, hobekuntza-planak ezartzeko erabiltzen da. **“Prestakuntzaren ebaluazioa”** deitutako ebaluazio-mota horretarako, gaitasunetan oinarrituta dauden zenbait metodo kualitatibo erabiltzen ditu Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleak. Segidan aipatuko diren metodo batzuei esker, informazio zehatza lor dezakegu iturri askotatik eta hainbat ikuspegitatik (gainbegiraleen ebaluazioa, norberak egindako hausnarketa eta autoebaluazioa). Informazio hori erabilita, **Urteko Ebaluazioaren Batzordeak**, kide guztiak ados jarrita, txosten bat egiten du. Txosten horretan jasotzen ditu egoiliarren indarguneak eta, hala dagokionean, hobetzeko arloak. **“Egoiliarren Urteko Espedientea”** osatzen dute gaitasunetan oinarritutako txosten horrek eta derrigorrean egin beharreko ikastaroen ziurtagiriek. Tutorea arduratzen da prestakuntza-prozesu guztia kudeatzeaz eta egoiliarri Urteko Espedientea emateaz.

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Kirurgia Plastikoko Zerbitzuko barne-mediku egoiliarrek lortu beharreko gaitasunak bat datoz Ospitaleko Irakaskuntza Batzordeak definitu dituen XXI. mendeko medikuaren zazpi gaitasun-arloekin. Hona hemen arloak:

1. Balio profesionalak, jarrerak, jokabidea eta etika.
2. Pazientearen zainketa eta trebetasun klinikoak.
3. Ezagutza medikoak / medikuntzaren oinarri zientifikoak.
4. Komunikazioa.
5. Osasun Sistemaren testuinguruan oinarritutako praktika (Osasunaren Sustatzailea eta Baliabideen Kudeatzailea).
6. Ikaskuntzan eta hobekuntzan oinarritutako praktika (analisi kritikoa eta ikerketa).
7. Informazioaren erabilera.

Espezialitate honi dagozkion asistentziako, irakaskuntzako eta ikerketako gaitasunak bildu dira hemen: [Programa oficial de la especialidad de Cirugía Plástica](#).



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Barakaldo, Bizkaia – Euskal Herria (Espainia)



Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko ebaluazio-sistema orokorra¹.

Irakaskuntza Batzordeak ([Irakaskuntzako Batzordea](#)) eta Gaitasunen Ebaluazio Batzordeak zuzentzen dute ebaluazio-sistema. Sistema hori Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea 2008. urtetik garatzen ari den "[Prestakuntza gaitasunetan oinarrituta](#)" izeneko proiektuaren barnean dago. Honako ebaluazio-metodo ([ebaluazio-metodoak](#)) hauek erabiltzen dira:

- Errotazio bakoitzaren gainbegirale zuzenaren ebaluazioa, gaitasunetan oinarritutako formulario baten bidez (Gurutzetako Unibertsitate Ospitalearen berezko eredua)
- Aldian behingo elkarrizketak tutorearekin (gutxienez urtean bi)
- Autoebaluazioa
- Urteko Memoria (Egoiliarren Liburuaren baliokidea da). Honako bi alderdi hauek biltzen ditu: lortutako gaitasunen gaineko hausnarketa, batetik, eta asistentzia-, irakaskuntza- eta ikerketa-jardueren zein lanbidearekin lotutako beste jardueren kuantifikazioa, bestetik.
- Gaitasunetan oinarritutako tutorearen urteko txostena
- Ebaluazio Batzordearen urteko balorazioa
- Irakaskuntza Batzordeak antolatutako derrigorrezko ikastaroak egitea
- Gaitasunetan oinarritutako urteko banako txostena

Egoiliarren ebaluazioa, jasotako prestakuntzaren gainekoa.

- Urtero, apirilean, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak gogobetetasun-inkesta bat bidaltzen die Euskal Autonomia Erkidegoko egoiliar guztiei.
- Bi urtean behin, otsail eta martxo artean, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza Batzordeak gogobetetasun-inkesta bat bidaltzen du. Inkesta hori duela 20 urte egiten hasi zen. Emaitzak zerbitzuei eta egoiliarrei jakinarazten zaizkie.

Kirurgia Plastikoko Zerbitzuaren berezko metodoak, Irakaskuntza Batzordeak onartuak.

Zerbitzuak honako metodo hauek erabilia egiten ditu ebaluazioak:

- Asistentzia-jardueraren ebaluazio jarraitua
- Tutorearen eta egoiliarren arteko elkarrizketa hiru hilean behin
- Zerbitzuan errotazioak egiteko aldi bakoitzaren amaieran azken ebaluazioa egiten da, egindako jarduerari buruzko memoriarekin batera
- Urteko ebaluazioa; horretan, kontuan hartzen da egoiliar gisa egin den urteko osoko memoria.

¹ Morán-Barrios J, Amutio E, Barbier L, Carrasco A, Gil-Lemus MA, Gómez B, Iriberrí M, Padilla L, Rodríguez-Iñigo MA, Saá R, Larrañaga I, Nieto J, Udaondo J eta González-Larragán S. Evaluación del residente basada en competencias. El modelo del Hospital Universitario de Cruces. XXI Congreso de la Sociedad Española de Educación Médica Madrid 2013. FEM 2013; 16 (2. gehig.): S62. Erabilgarri dago hemen: <http://www.sedem.org/resources/abstractsSedem2013.pdf>.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Barakaldo, Bizkaia – Euskal Herria (Espainia)



Kirurgia plastikoa, konpontzailea eta estetikoa ©